



DOCENTIAZ PROGRAMA
UPV/EHUko irakasleen irakaskuntza jardueraren
ebaluazio programa

FASE ESPERIMENTALEKO HIRUGARREN DEIALDIA

2012ko iraila

**KALITATE ETA IKASKETA BERRIKUNTZAKO ERREKTOREORDETZA
VICERRECTORADO DE CALIDAD E INNOVACIÓN DOCENTE**

IRAKASLANA EBALUATZEKO ZERBITZUA / SERVICIO DE EVALUACIÓN DOCENTE

1. DEIALDIAREN HELBURUA

DOCENTIAZ programaren hirugarren deialdi esperimentalak UPV/EHUko irakasleen irakaslanaren kalitatea hobetzea eta aintzatestea du helburu, baita informazio fidagarria eta egiaztatua ematen duen irakaslanaren ebaluazio prozedura bat izatea ere.

Horrez gain, aldi esperimentalari esker, UPV/EHUK DOCENTIAZ aplikazio informatikoa hobetu ahal izango du programak behar duen informaziorako sarbidea eta horren tratamendua mekanizatu ahal izateko.

Beraz, programa trebakuntzarako besterik ez da eta irakaskuntzaren kalitatea hobetzea du helburu.

2. DEIALDIRA AURKEZ DAITEZKEENAK

Deialdi hau borondatezkoa da eta programa honetan parte hartzeko ezarritako baldintzak betetzen dituzten UPV/EHUko irakasle eta ikertzaile guztiei zuzenduta dago. Ezin izango dute parte hartu, ordea, lehenengo eta bigarren deialdian parte hartu zuten irakasleek.

a) Karrerako irakasle funtzionarioak eta lan kontratu finkoa edo kontratu egonkorra duten irakasleak (osoak, agregatuak, edo lankide finkoak):

1. Multzo honetako irakaslea deialdira bildu ahal izateko, ezinbestekoa da UPV/EHUrekin gutxienez bost urteko kontratuzko harremana eduki izatea, eta
2. Denboraldi horretan ondorengo irakaskuntza zama egin izatea:
 - 75 kreditu, lanaldi osoan aritzen diren irakasleentzat.
 - 45 kreditu, lanaldi partzian aritzen diren irakasleentzat.
 - 45 kreditu, kargu akademikoan dihardutelako eskola ematetik salbuetsita dauden irakasleentzat.

Talde honetako irakasleak ebaluatzeko denboraldia GAUR aplikazioan aitorturiko kredituak dituzten azken bost ikasturteei dagokiena izango da -2010/11 ikasturtea izango da kontuan hartuko den azkena-. Eskatutako kredituak ez badira lortzen, ebaluazio epea luzatu egingo da, ezarritako gutxienekoa lortu arte.

Arduraldiz aldatuz gero, gutxienerako irakaskuntza zama modu proportzionalan kalkulatu da, ondorengo formularen arabera:

$$\frac{(\text{urteakosoan} * \text{GutxienerakoIZosoan}) + (\text{urteakpartzianleank arguarekin} * \text{GutxienerakoIZpartzianlean})}{\text{ebaluazioaldikourteak}}$$

urteakosoan = Arduraldi osoan irakatsi den urte kopurua.

GutxienerakoIZosoan = Arduraldi osoan arituz gero, programak eskatzen duen gutxienerako kreditu kopurua (75).

urteakpartzianleank arguarekin = Karguan, edo arduraldi partzianle irakasten, emandako urte kopurua.

GutxienerakoIZpartzianlean = Arduraldi partzianle arituz gero, edo kargua betez gero, programak eskatzen duen gutxienerako kreditu kopurua (45).

ebaluazioaldikourteak = Ebaluazio aldia osatzen duen urte kopurua.

b) Aldi baterako kontratua duten irakasleak (atxikiak, lankideak, bitarteko lan kontratadunak edo elkartuak):

1. Multzo honetako irakasleek bi baldintza hauek bete behar dituzte: batetik, UPV/EHUrekin gutxienez hiru urteko kontratuzko harremana eduki izatea; eta
2. bestetik, denboraldi horretan 36 kredituko irakaskuntza zama egin izatea gutxienez.

Aldi baterako lan kontratua duten irakasleei ebaluatuko zaien denboraldia (kontratuak irauten duenaren arabera) hiru eta bost ikasturte artekoa izango da, GAUR programak aitorturiko kredituei dagozkien azken ikasturteenak-2010/11 ikasturtea izango da kontuan hartuko den azkena-. Eskatutako kredituak lortzen ez badira, ebaluatu beharreko denboraldia luzatu egingo da, gutxienezko kreditu kopurua lortu arte.

Aldi baterako kontratua duten eta eskaera unean UPV/EHUrekin kontratuzko harremanik ez duten irakasleek DOCENTIAZ programan parte har dezakete, betiere, eskatutako baldintzak betetzen badituzte.

Ez da kontuan hartu goi mailako hezkuntzako beste erakunde batzuetan edo titulu ez ofizialetan (alegia, UPV/EHUko berezko tituluetan) egiten den irakaslan.

3. ESKAEREN AURKEZPENA

Eskaerak **2012ko irailaren 5etik irailaren 20ra, biak barne**, egingo dira UPV/EHUren webguneko DOCENTIAZ atarian. Parte hartu nahi duen irakasleak bere LDAP sartuko du hurrengo helbide informatikoan <http://gestion.ehu.es/docentiaz> eta aplikazioak programan ezarritako baldintzak betetzen dituen jakinaraziko dio.

Hala bada, jarraian eskabideko datuak aktibatuko dira, eta irakasleak ondorengo autotxostena egiteko irakasgaia aukeratu beharko du. Irakasleak hautatutako irakasgaiari dagokion ikaslearen gida erantsi behar du (alegia, irakasleak ikasleei banatzen dien gida). Hautatutako irakasgaia irakaslearen irakaslanaren adierazgarri izatea gomendatzen da. Irakasgai horrek gutxienez ondorengo baldintzak bete behar ditu:

- Matrikulatuta gutxienez bost ikasle izatea.
- Irakasleak irakasgaiari dagozkion kredituen % 30 ematea gutxienez, eta ehuneko hori gutxienez kreditu bat izatea.
- Ez da kontuan hartuko ondorengoetako irakaslanak: doktoregoa; practicuma; karrera, gradu edo master amaierako proiektuak; eta esperientziaren gelak.

Interesatuta dagoen irakasleak oniritzia emango die ebaluazio eskaerako datuei eta hauek, automatikoki, programa informatikoan erregistratuta geratuko dira. Hortik aurrera, irakaslea autotxostena osatzen has daiteke. Irakasleak ez badaude ados UPV/EHUren datu baseetatik (funtsean, GAUR aplikaziotik) deskargatzen diren datuekin, erreklamazioa bideratu ahal izango dute, Servicio de Evaluación Docente/Irakaslan Ebaluatzeko Zerbitzuak (aurrerantzean, SED/IEZ) kudeatuko duena.

Irakasleak **2012ko irailaren 20tik urriaren 20ra arte** osatu ahal izango du autotxostena. Horretarako, DOCENTIAZ eskuliburuan eta DOCENTIAZ aplikazioaren erabiltzaile eskuliburuan bildutako argibideei jarraituko die.

Egindako eskaera irakaslea atxikita dagoen Ikastegiko Kalitate Batzordeari helaraziko zaio. Ikastegiko Kalitate Batzordeak, edo, hala badagokio, ikastegian DOCENTIAZ txostena egiteko ardura duen batzordeak, telematikoki beteko du txostena, **2012ko azaroaren 20a** baino lehen.

4. EBALUAZIO PROZESUA

Errektoreak izendatu eta Gobernu Kontseiluak berretsitako Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeak (CUED/IEUB) telematikoki kontsultatu ahal izango ditu irakasleek, ikastegietako Kalitate Batzordeak eta ikasleek emandako informazioa biltzen duten espedienteak. CUED/IEUBk hiru hilabete izango ditu informazioa aztertzeke eta txostena irakasleari bidaltzeko; hori guztia, datu pertsonalak babesteko printzipioak errespetatuz.

5. ALEGAZIOAK EGITEKO PROZEDURA

Amaierako erabakiari buruz alegazioak aurkezteko, 15 eguneko epea egongo da, irakaslearen amaierako txostena jasotzen den egunetik hasita.

Alegazioak formatu elektronikoan aurkeztuko dira, DOCENTIAZ aplikazioko inprimakiaren bidez; haiekin batera, bidezkoak iruditzen diren agiriak eta ziurtagiriak ere aurkeztu ahal izango dira.

Batzordeak gutxienez hilabeteko epea izango du jasotako alegazioak aztertu eta haien gainerako erabakiak hartzeko eta amaierako txostena prestatzeko.

Amaierako txosten horren kontra gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio UPV/EHUko errektoreari eta honek Berme Batzordeari bidaliko dio.

6. PROGRAMARI BURUZKO INFORMAZIOA

Deialdi honi buruzko informazio guztia hurrengo web orrian kontsulta daiteke

http://www.ikasketa-berrikuntza.ehu.es/p272-shevdoct/eu/contenidos/informacion/docentiaz/eu_docentia/indice_docentiaz.html